

opusdei.org

Jose Manuel Martinez, Iruñeko Ordezkaritzarako Opus Deiko Bikario berria

Pedro Alvarez de Toledo,
1989tik kargu honetan izan
dena, Madril-Mendebaldeko
Ordezkaritzarako Opus Deiko
Bikario izan da izendatua

2005 Eka 12

Javier Echevarriak, Opus Deiko
Gotzain-Prelatuak, izendatu du Jose

Manuel Martinez (Ciudad Real, 1958)
Iruñeko Ordezkaritzarako Bikario
berria. Medikuntzan lizentziatu zen,
Murtziako Unibertsitatean, eta
Teologian doktore egin zen
Nafarroako Unibertsitatean.
Erroman urte batzuk ikasten eman
ondoren, 1992an apaiztua izan zen;
geroztik, ardurazko zenbait kargutan
ari izan da Madrilen eta Iruñean.

Aldi berean, Pedro Alvarez de
Toledo, 1989tik kargu honetan izan
dena, Madrileko Ordezkaritzarako
Opus Deiko Bikario izan da
izendatua.

Opus Deiko Prelatutzak hamar
ordezkaritza ditu Espainian, bere
fededunen eta laguntzaileen ardura
izateko. Fededun laikoak, beste
kristau guztien antzera eta gauza
berberetan elizbarrutietako
gotzainen menpe daude. Opus Deiko
kide bihurtzeak bizitza kristaua

bizitzen saiatzeko konpromisoa
dakar.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/jose-manuel-martinez-
iruneko-ordezkaritzarako-opus-deiko-
bikario-berria/](https://opusdei.org/eu-es/article/jose-manuel-martinez-iruneko-ordezkaritzarako-opus-deiko-bikario-berria/) (2026 Api 1)